

JAIOTERRIAREN IPUIÑA

Neure jaioterriko mendi eta zelaietatik ziar ibili naz, galdezka ta itaunka. Etxerik etxe. Mendirik mendi. Ibarrik ibar. Edur-bideetatik neguan. Baso-tantaien kerizpetatik udan. Udabarriaren jaiotza eguntan ibili naz. Udagoienaren agoliñan be bai. Ibaian eta erreka txikietan. Itxaso-ertzean. Ondartza bigunean.

Eleiza ta ermiñtetan. Kanposantuan. Pelotajoko-lekuan.

Galdezka mendi ta ibarretako gizonai. Ardizaintzailleai. Baserritarrai. Olagizonai. Giltzape-barruan dagozanai. Ikasidunai. Bertsolari ta txistulariai. Espatadantzari ai eta argi-indarrezko kitarrajoztailleai.

Abere ta kokoai. Piztia i. Txoriai. Arraiñai.

Eguzkiari egunez. Iretargiari eta izarra i gabez.

Zugaitz zarrai eta landara barriei. Bedar txikia i.

Lurrari. Arriei. Euriari. Edurrari. Laiñuei. Iturri gorriko ur otzari. Aizearen txistu-soiñuari.

Abade, fraide eta mojen eleiz-kantai. Siñistedunen otoitzai. Zalantzan dabiltzanen gogouste larriai. Langillien izerdiari. Kantarien kantuei. Gogoak illunduta bizi diranen kerizpeai. Itxaropenean sinistuten dabeenan arnasari.

Beste bazter askotatik be ibili naz. Eztot uste baztarlekurik itxi dodanik ikusi ta galdetu barik.

Ipuin bat egiten asi naz, etxera etorri nazenean. Euskalerrriaren ipuiña. Ez naz ausartu Ama-Lurraren poema-olerkia egiten. Baiña bildur naz, eztakit amaitu al izango ete-dodan azkeneraiño dan-dana. Asi beintzat asi naz ipuiñ luze au egiten. Ikusiko dogu noz amaituko dogun, iñoz amaitzekoa bada.

Jaioterriaren arimeak betiko egan egiten daben orduan be, beragaz batera joatea gure neuke, orain asi dodan ipuiñagaz.

UNAI ANAI.

1967.